

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko martxoaren 31 / VI. urtea / 172. zenbakia

Ordenadoretik mundura

Aste mugitua izan da Nafarroan telematika eta komunikazioen arloan. Aurreko asteazkenean aurkeztu zen Iruñean munduko Internet sare erraldoiari gure artean sarrera ematen dion Servicom enpresa, eta astearte honetan EuskalNet elkarte berriak ere azaldu ditu bere asmoak. Biei esker, ordenadore baten eta modem-aren bidez gure lurraldetik munduko edozein tokitara irits daiteke, bai mezuak uzteko, bai informazioa jasotzeko, bai eta komunikazioen munduko iraultza den arlo hau pixka bat gehiago ezagutzeko ere. EuskalNet-i erreparatu diogu bereziki, Hego Euskal Herria lotzeaz gain zerbitzu eskuragarriagoa delako edonorendako. Kuota merke baten truke 25.000 ordenadoreekin harremanetan egoteko aukera eskaintzen du elkarte honek, eta baita giza eskubideak, ekologia edota garapen orekatuari buruzko informazio zabala ere. Guretik mundura.



Iruñeko Descalzos kalean bizi den adiskide batek berrikitan kontatu didanez, kale bereko bere lagun bat hiriko beste auzo batera jaon behar izan da bizitzera Alde Zaharreko giro gogaikarriaz uxaturik. Adiskidearen hitzetan, sei urteko mutiko bat badu lagun honek, eta kezkatu zegoen ingurune giro nahaspilatsurengatik, han bizitzeak ez ote zion kalterik egingo semeari, alegia. Bestetik, handik alde egiteko arrazoien artean arraza arazorik ere izan omen du, lagun honen auzokide gehienak ijitoak baitira eta, nonbait, semeak, baten batekin kalean jolastekotan beraiekin egin behar ko zuen, azken hau aitaren burutik pasa ere egingo ez zitzaioala; mutikoa, delinkuente bihurtuko zelakoan. Honaino bada, adiskidearen kontakizuna eta, hemen-

dik aurrerakoa pasadizo honekin nigan piztutako gogoeta.

Ikusmolde askotatik azter daitzke hirigune honetako arazo mordoak: behar adinako azpiegiturarik ez edukitzea, andana bat etxeren egoera fisiko txarra, zabor bilketaren auzia, biztanleen zahartzapena, asteburuetakoko ganberradak, kale-liskarrak eta abar. Garbi gera bedi arazo hauen soluziobide franko Udalak urratu behar dituela, bera baita eta ez besterik, ardura gehien duen erakundea. Entzuten jakin beharko luke auzoko jendeak zer aldarrikatzen duen, zein diren haien arrenkurak eta, auzokoe-

Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



kin batera, arazorik larrienak konpontzen saiatu. Baina hartarako, ausarta behar luke izan Udalbatzak, ausarta eta elkarrizketarako malgua, gaur egungoak erakutsi ez dituen doainak, hain zuzen.

Guziarekin ere, ez dezagun geure burua engaina: Udala ote da agian, Alde Zaharraren gainbehera honen erantzule bakarra? Berari bakarrik ote dagokio konponbiderik aurkitzea? Ez dut uste horrela denik. Esate batera, hiritarren jarrerak nolakoak diren, orduan eta halako espazioari buruzko trataera jakin bat ondorioztatuko genukeen, eta garbi

dago, norberaren espazioari baino ez diola begiratzen gizarteak, espazio publikoa zer den ere, eta are gehiago, nola zaindu eta nola garatu behar den askori bost axola diolarik. Neurri handi batean, heziketa arazo bat besterik ez da, ekologia hiriarekin ere zerikusizuzena duen beste elementu bat dela. Eztabaida hau plazaratzen ez den bitartean —udal, etxe, irakaskuntza eta hedabideetan landu beharko genukeena—, deus gutxi aurreratuko da alor honetan. Denontzako espazio eta ondarea norberarena bezain balioetsua dela kaskoan sartu arte, hiria —zaharra nola berria— litrona baten modukoa izango da: ireki, edan eta, ostiko bat emanez, asfaltoaren kontra puskatzen dena, dozena bat zaborrontzi edo ha maika udaltzain aldamenean izan arren.

Alde zaharraz haraindi

MUSIKA



'Seihots', 'Fliter', 'Begira', 'Urtz', 'Eskixu' eta 'Etsaiak' musika taldeen kontzertua izanen da bihar larunbata, apirilak 1, Barañaingo Retegi pilotalekuan. Arratsaldeko 8.30etan hasiko da eta kontzertuaren ostean gaupasa dago antolatua 'Drindots' taldearekin. Sarrerak 1.300 pezetan salduko dituzte takillan bertan, eta aurretik erosiz gero 1.000 pezetan. Zurrunka, Kattu eta Tanta-ka tabernetan eta Kilkir disketxetan saltzen dira.

Jorge Pardo eta Chano Rodriguez musikarien kontzertua izanen da heldu den ostegunean, apirilak 6, Iruñeko Reverendos diskotekan. Gaueko 10.00etan hasita, sarrerak 1.800 pezetan salduko dituzte takillan; aurretik erosiz gero 1.500 pezetan.

IBILALDIAK



Lizaratik hasi eta Bois de San-sanet-era (Somport) doan ibilaldia antolatu du igande honetarako, apirilak 2, Nafarroa Kirol Elkarteak. Zeharkaldia mendi eskiz burutuko da eta bertan parte hartu nahi duenak Elkarteko egoitzara joan (Jarauta 78) edo 22 43 24 telefonora dei dezake.

Gasteiztik Iruñerako mendi zeharkaldia antolatu dute Bagare Kultur Tokiak eta Zaldiko Maldiko Elkarteak Aste Santurako. Apirilaren 13tik 17ra izanen da eta ibilbidea Urbasa, Entzia eta Andia mendilerroetatik doa, ikuspegi ederrak eta baso ikusgarriak zeharkatuz. Laguntzarako furgoneta izanen da eta pentsaturiko gastuak 15.000 pezetakoak dira, gutxi gora behera. Apuntatzeko Zaldiko Maldikora edo Gasteizko Bagare tokira joan behar da, apirilaren 3a baino lehen.

BESTELAKOAK



'Errenta' izeneko antzezlanaren taularatuko du Bederan Bat taldeak heldu den ostegunean, apirilak 6, Iruñean. Udalak helduentzat antolatu duen euskarazko programazioaren barruan, arratsaldeko 8.00etan hasiko da, Nafarroako Antzerki Eskolan. Sarrerak 600 pezetan salduko dira.

Sebastian Lizaso eta Xabier Amuriza bertsolariaren saioa izanen da bihar larunbata, apirilak 1, Iturengo Ostatuan. Bertso afari moduan antolatua, gaueko 9.00etan hasiko da.

NAFAR KRONIKA

PATXI LARRION

Gazteluak, bazterrak eta kokoak

Martxan da jadanik Allizaleen alderdia. Alta, pertsona baten inguruan sortutako plataformak ez du oraindik pertsona horren oniritzia. Horra hor galdera, hartuko al du Alli jaunak 2000. urteko Nafarroa helburu duen alderdiaren ai-

izana. Hala ere, sentimenduaz ari gara, eta maitasun-gorrotoen mundua, politikan ere, hagitik aldakorra den kontua da. Agian, alderdi bilakatu nahi duen plataformaren eratzailen garrantzia gutxiatea litzateke, baina, nabari denez, aurreko lege-

tuzte hautagai zerrendan. Bestaldetik, ekialdeko zenbait alkatek aukera latza dute, lehendabiziko aldiz UPN izenez aurkeztuko direlako herri horietako hautagai zerrendak. Beraz, urteetan eraikitako 'gaztelua' beste batzuen eskuetara pasa bai-



tzindaritzat? Oraingoz zaila dirudi.

Allizaleek gizartearen dagoen sentimendu baten adierazleak izan nahi dute. UPNren barruko krisia sortu zenetik ezin ukatuzkoa da nafar gizartearen sektore ugariak Alli nahiago dutela adierazi

gintzaldian Alliren sostengu izan diren laguntzarik gabe, edozein proiektu ezerezean geratuko da.

Egungo UPN alderdian agintean daudenek zuhur-jokatu dute. Lehendakariaren aldekoak izan zitezkeen kontseilariak postu onak di-

taiteke, beti ere 'bazterrak' nahasteko gai direla ezin uka.

Erronka polita 'kokoentzat'. Sentimendua boto bihurtzea zaila bada ere, lurralde honetan hamaika eta bi ikusteko prest egon gaitzke.

ASTEKO PERTSONAIAK



Migeltxo Saralegi
Harrijasotzailea

Errekor berria lortu zuen joan den larunbatean Migeltxo Saralegi leitzarrak Antzuolan (Gipuzkoa), 321 kiloko harria jaso baitzuen sorbalda gainera. Berrero ere Iñaki Perurena maisuaren aurretik jarri da Migeltxo Saralegi, aurreko batzuetan egin duen bezala, kilo batez bada ere. Ez da, gainera, horretan geratuko; astebete barru 322 kiloko harritzararekin saiaturiko da berrero Saralegi gazte leitzarra Anoetan, bere herriko arerioa urrutiago uzteko asmo biziz. Azken bi urteak prestaketan pasatu ditu, isilik eta gogor lanean, marka berriak hautsi nahian. Aurretik urte asko ditu harrijasotzaile gazteak baina jakin behariko da non dagoen muga, noraino irits daitekeen pertsona bat pisua jasotzen.



Txaro Miranda
1995eko Tuterarra

Oraingoa dela 30 urte Donostiatik Tuterara bizitzera joan zen Txaro Miranda andreari eman diote aurtengo Urteko Tuterarra izeneko saria Erriberako hiriburuan. Pertsonaia herrikoia izaten dira sari hori jasotzen dutenak, herriaren alde lan isila eta ordaingabea egiten dutenak. 'El señor Tomas' pertsonaia ezagunaren alarguna da Txaro Miranda, eta Tuterako beste lagun batzuekin 'Ostegunetako peña' osatu zuen; ostegunero bildu eta tertuliak egiten dituzte. Saridunaren izena aste honetan jakinarazi dute baina saria uztailearen 25ean emanen diote, Tuterako jai bezperan, hain zuzen, urtero izaten den moduan. Urduri agertu zen sariduna, baina pozik: «Harro sentitzen naiz titulua lortzeagatik eta inguruan izan ditudan lagunei eskaintzen diet».

AHAZTU GABE!

IKASTAROAK



Andrea, emakumeen zaintzarako zerbitzuak ikastaro berri ugari antolatu ditu datozen hilabetetarako, ohi duen bezala. Apirilaren hasiko dira guztiak, batzuk besteak baino luzeagoak direlarik. 'Autodefentsa' ikastaroa apirilaren 25ean hasiko da eta astearte eta ostegunetan emanen dute, arratsaldeko 19.00etan. 'Autoestima eta abilitate soziala' izeneko ikastaroa ere apirilaren 25ean hasiko da eta aurrekoa bezala astearte eta ostegunetan emanen dute. Honetan, ordea, goiz eta arratsaldeko ordutegia dago, eta maila ezberdinak ere kontutan hartuko dira. 'Publikoaren aurrean hitz egiteko teknikak' ikastaroa apirilaren 24an, 25ean, 26an eta 27an burutuko da, egun bakoitzean lau orduko saiotan (arratsaldeko 4.00etatik 8.00etara). Plaza mugatuak izango dira, beraz, interesatuak daudenek azkar apuntatu behariko dute. 'Antzerki tekniken tailerra' ikastaroa apirilaren hasi eta ekaina bitartean eskainiko du Andreak, asteazkenetan, arratsaldeko ordutegian. Azkenik, ingelera ikasteko ikastaroak ere antolatu dituzte, maila eta ordutegi guztietan. Ikastaro hauek partehartu nahi duenak Andreako egoitzara hurbildu (Navarrería 15) edo 22 77 14 telefonora dei dezake.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritzatza, ohiturak...



Tutera

Dantzari Eguna apirilaren 22an

TUTERA

Euskal Herri osoko 600 dantzari inguru bilduko dira apirilaren 22an Tuteran, bertan ospatuko den Dantzari Egunaren kariaz. Euskal Dantzarien Biltzarra eta inguruko dantza eta gaitero talde gehienek antolatuta, jaialdia nagusia ezetik mintzaldiak eta erakusketak ere izango dira merindade osoan.

Egitaraua joan den astean aurkeztu zen Tuteran, eta antolatzailerak azpimarratu zuten helburu nagusia talde guztiek urtean zehar egiten duten lana ezagutaraztea eta Nafarroako folklore aberatsa ezagutaraztea dela. Antolakuntza lanetan Erriberako hainbat talde aritu dira: Tuterako Muskaria eta San Juan, Fustiñanako Barde-Ribera, Ablitasko Mendianike eta Ribaforada, Argetas, Kaskante eta Korteko dantzariak. Halaber, Tutera, Ribaforada, Kaskante, Zentroniko eta Fustiñanako gaiteroek ere parte hartu dute lanetan.

Ekitaldiak gaur bertan, hilak 31, hasiko dira, 'Folklore, aniztasuna eta aberastasuna' izeneko mintzaldiarekin. Jose Miguel Birado adituak emango du Tuterako Castel Ruiz zentroan, arratsaldeko 8.30etatik aurrera. Bihar, apirilak 1, musika ekitaldia izango da. Lourdes auzoko San Juan elizan. Tuterako txistulariak diren Pedro Luis Arregi, Go-



Antolatzaileen ustetan, 600 dantzari inguru bilduko dira.

yo Villar eta Mariano Hernandez izango dira bertan, eta Jose Luis eta Elena Frailek organo eta gaitarako lan batzuk joko dituzte. Apirilaren 8an Castel Ruizen dantzari txikien emanaldia izango da, Tutera, Ablitas eta Kastejongo taldeekin. Gaurtik hasi eta apirilaren 17ra bitarte, aipatu kultur etxean, Nafarroa osoko jantzi-folkloriko eta soinu-tresnen erakusketa izango da.

Egun nagusia apirilaren 22a izango da, Erriberako herri nagusietan bertako taldeek beste

merindadeetako taldeekin batera dantzaldiak eskainiko dituztela. Ablitasen Otsagiko dantzariak ariko dira eta Zentronikon Zangozako Rocamador taldekoak; Kaskanten, Donibane-Garaziko Garaztarrak izango dira eta Kortesen, Erriberriko Txibiri; Ribaforadan Lizarrako Larraiza taldekoak, Argetasen Altsasukoak eta Fustiñanan Berako Gure Txokokoak. Emanaldiak amaitutakoan, talde bakoitzak herri batean afalduko du, eta ondoren Tuterara bilduko dira de-

nak, antolatu den berbenaz gozatzeko.

Hurrengo egunean, apirilak 23, talde guztiak goizeko 11etan bilduko dira, Lourdes auzotik aterako den segizioari hasiera emateko. Foruen Plazara helduta, ordu batean hasiko da talde guztien alardea, eta kioskoaren ondoan Tuterako Jota, Baztango Zortzikoa eta Larrain Dantza dantzatuko dute denen artean. Azken ekitaldia herri bazkaria eta kontzertua izango da, udal kiroldegian.

Zizur Txikia

KIKE D. DE ULTZURRUN / IRUÑEA

San Fermin Ikastola: igandean egun nagusia

Duela 25 urte 'Gordini' markako autoan sarturik Zizur Txiki-kiko Verbo Divino komentura zihoazen bi gizonen buruan kezka izan zen nagusi, noski. Izan ere, premiazkoa zen 270en bat ikaslerentzat tokia aurkitzea, 69-70 ikasturtearen azken bi hilabeteak bukatzeko. Lekua erdietsi zuten, ikasturtea amaitu eta mende laurdena pasa da, eta, hori jakina, ospatu egin behar da. Festatu egin behar da, eskerrak emateko hasierako gizon emakume haiei eta eskertzeko horrenbertze lagunak egindako lan handia. Festa eguna etzi izan da, apirilaren 2a, igandea. Dantetari ekitaldiak prestatu dituzte eta dena lotuta dago eguraldiarena izan ezik.

Ekitaldiak goizeko 10etan hasiko dira, meza emanen baitu Ikastolako Iturria apez jaunak modu bereziaz gogoratzeko joan direnak. Ondoren, esku lanetako irakasleak, hots, Mikel San Romanek landutako oroitarri ikus-

garia inauguratuko da. Duela zenbait hilabete, harriztar handia zen, eta, gaur egun, benetan irudi polita ikus daiteke San Roman altsasuarraren esku trebezi esker. Badu merezimendu.

Goiz erdian, behar bada, ekitaldirik huunkigarriena burutuko da, omenaldia. Ikastolari lotutako guztiak omendu nahi dituzte: direnak eta izan direnak, irakasle eta ikasleak, eta, oroiz gain, gurasoak, zinez ausartak izan baitziren gisako proiektua abiarazterakoan. Tarte horretan ere tokia eginen da oroitarazteko hiru ikasle ohi espertxean daudela: Gaizka Aranguren, Esthertxo Lakasta eta Imanol Aranburu.

Herri kirolak ere izanzen dira eta, agian, munduko bi errekor ikusteko parada eskeiniko digute Jose Bikondoa aizkolariak eta Iñaki Perurena harrijasotzaileak.

Lehenbizikoa saiaturiko da enborra mozten lurretik hamar metro eta 70 zentimetroetara. Horretarako, bihar, luzeran 14 metro hartzen dituen makal bat plantatuko dute ikastolako futbol zelaian. Leitzarrak, ordea, esku bakarrez heldu nahi dio 268 kiloko harriari marka berria ezartzeko asmoz. Festa giroa izugarri barreiatuko da eta, bazkarian mila lagun baino gehiago bilduko dira. Festari akabera emateko, finen, Ruiz Gordoa anaiek jendea dantzaraziko dute bai jota dantzan, bai lotuan. Bertzera erranik, Joselu Anaiak plaza taldea arituko da.

Antolatzaileak arras kontent dabilta, ez baitzuten uste horrenbertze jende izena emanen zuenik bazkari horretarako. Hainbat eta hainbat ikasle lehendabiziko aldiz elkar ikusiko

dute hameka urte pasata, eta, une ezinago aproposa izan da joandako garaik gogora ekarri eta horiez gozatzeko: pasadizoak, bitxikeriak, ke beltz beltza botatzen zuten trenak, Elortz erreka, erreka ondoko errota hondatua, errotaren parean zegoen gereziondoa, benetan gerezi goxoak ematen zituena, eta, adierazi, bidenabar, udako oporrrak hasteaz zeudela.

Hantxe da beraz, San Fermin Ikastola, Iruñerrian, kasik erdi erdian ezarria, azken 'koko' euskaldunen lekukoa hartu eta euskara, berriro, Iruñerria zabalitzen ahalegintzen dena. Izanez ere, paper zaharretan 'errotaldea' hitza agertzen da. Tamalez, zizurtarrek euskara galdu eta 'el molino' erraten zioten. Baina, ikastola sortu eta, ikasleak, berez, 'errota' hitza hasi ziren erabiltzen b a z t e r h u r a aipatzerakoan. Hizkuntzen joan etorria. Hala izan bedi joan den mendean erreka jo zuen Iruñea inguruko mintzamoldeari doakionez.

Lekunberri



Lasterketa polita izan zen.

Castillo nagusi Arruizko Txikito Lasterketan

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Angel Castillo Martinez Beste Iruña taldeko korrikalari azkoienak irabazi zuen joan den igandean egin zen Lekunberriko Legoa lasterketa, nahiz eta errekorretik urrun samar gelditu. Castillok alde egin zuen Azpirozko gainerako gutxi falta zela, eta ez zuten harrapatzerik izan. Hemezortzi minutu eta 50 segundu behar izan zituen sei kilometroko ibilbidea egiteko. Bigarren tokian Ibarako Ignacio Olamusu sailkatu zen, 19 minutu eta 4 segunduko denborarekin. Hirugarren tokian lasterketaren zati handi batean buruan egon zen Pamplona Atletico taldeko Alfredo Lusarreta sartu zen, 19 minutu eta 11 segunduko denborarekin.

Hogeita hamar korrikalarik hartu zuten parte Arruizko Txikito memorial honetan, eta ia paratutako errekorra —Andres Perezena (17 minutu 43 segundu)— gainditzen zuenarendako sari berezia bazegoen ere, korrikalariak urrun gelditu ziren. Lasterketaren antolatzailea den Carlos Balda Lekunberriko Kirol arduradunak zioenez, zer esan handia izan zuen Azpeitia-Azkoitia lasterketa egun berean izateak. «Garin affaiak, esate baterako, han zeuden, lasterketan marka ona egin izan ohi duten batzuekin batera, eta Andres Perez gaixo zegoen». Nolanahi ere, ikusi zen maila polita azpimarratu zuen arduradunak.

Irabazleak 35.000 pezetako saria jaso zuen, baina larraundarre ere bazuten bere sailkapena. Lehen postuan gelditu zen Angel Buldain 19 urteko kirolaria, erlojuak 19 minutu eta 13 segundutan geldiarazi baitzuen. Ez zen sorpresa izan, orain arte egin dituen Nafarroako txapelketa gehienetan nagusitu egin baita etorkizun ederreko gazte hau.

EuskalNet izeneko elkarte telematikoa aurkeztu da aste honetan Iruñean, nola eta zertarako sortu den azaltzeko. Funtsean, munduko 25.000 ordenadorekin konektatzeko eta bertan sortzen den informazioa modu merke eta azkarrean eskaintzeko taldea da, Euskal Herrian aitzindaria. APC elkartearen barruan, ingurugiroaren oreka, giza eskubide eta garapen kontrolatuaren alde dauden taldeak biltzen dira bertan. Hots, informazio-autopistetak bidegorria.

Autopistako bidegorria


ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Kurdistantiaren gerraren inguruan kurdu batek idatzitako irakurtzea, eta erantzutea; Zeelanda Berrira eskutitza bidaltzea hamar aldiz azkarrago eta berrogei aldiz merkeago; euskarari buruz eztabaidatzea palestinar batekin; nahi den gaiari buruz munduan dagoen informaziorik osatuena lortzea... hori guztia etxetik atera gabe, egunkaririk leitu eta telebistatik edo irratrik piztu gabe ere, nor bere ordenadoreko pantaila piztuta, ez besterik. Ez da fikzioa, ez ametsa. Mundu osoan milioika lagunek egiten dute dagoeneko, eta eza gutzen ez dutenek soilik diote beldur, erreparo eta mesfidantza. Garbi dago azken iraultza dela, eta, akaso, handiena. Iraultza guztiek izan dute kontrakoa zein aldeko asko.

Al Gore Estatu Batuetako lehendakariordeak 1978an aipatu zuen lehendabiziko aldiz 'informazio-autopistak' izena, baina orduan ezingo zuen pentsatu, ezta hurrik eman ere, deiturak horrelako arrakasta izango zutenik. Hamabost urte geroago ez da besterik entzuten komunikazioarekin nola edo halako harremana dutenen artean, eta munduko informazio guztia edozein denak eskuragarria izango dela pentsatze hutsak txiribitak aterarazten ditu askoren pantailatik. Aipatu 'informazio-autopistak' oraindik ez dira sortu, baina eratzean oso komertzialak eta garestiak izango direla diote adituak. Martxan dago, hala ere, Internet izeneko sarea, edo azpiegitura: etorriko denaren oinarria.

Funtsa oso sinplea da: ordenadore sare bat osatzen da telefono, kable eta sateliten bidez. Horrela, denek hitz egin dezakete —truka dezakete informazioa— denekin. Gaur egun 3,8 milioi *apopilo* —bai ordenadore nola ordenadore sare— daude sare horren barruan, Internet esaten zaion konplexu informatiko erraldoi horren barruan. Aukerak ez dute mugarik: ikus daitezke zuzenean New Yorkeko Madison Square Garden ari diren Rolling Stonesen kontzertua, ikus daitezke pantailan Louvreko Museoko 'Gioconda' margolana, eskutitza bidali ahal zaizkio Chiapasko gure lagunari, Japoniako liburutegi batean dagoen artxiboa kontsulta daitezke...

Garrestia da, baina zenbait zerbizitu eskuratu ahal izateko en-




presa pribatu bati erosi behar zaizkiolako eskubideak —lehengo astean Iruñean bertan aurkeztu zen Servicom Kataluniako enpresa, kasu—. Gainera, esan daitezke Iparraren informazioa dela, ez Afrikak ez Asiak ez dutelako behar adina sarrera sare honetan, eta erabiltzeko aski konplikatu da oraindik, ezezagutza batzuk izan ezkiz.

APC: Horren inguruan 1990-EAN SORTUA

Horren inguruan sortu zen Komunikazioen Garapenerako Elkartea (APC) izeneko taldea 1990ean. Helburua zen Internet sareak eskaintzen zuen azpiegituraz baliatzea helburu ez-komertzialekin. Londresko GreenNet eta Estatu Batuetako IGC taldeek osatuta, giza eskubidea, ingurugiroaren defentsa, garapen kontrolatua, bakea eta justiziaren alde komunikazio elektronikoa erabiltzea da, azken finean, asmoa: edozeinek eskura lezakeen informazioa eskaintzea. Lau urte geroago 60 dira bazkideak, eta gaur egun 70 bat. Azkena, Euskal Herrikoa, EuskalNet, alegia.

Dena hasi zen 1994ko apirilaren Madrilen egin zen 'Foro alternatibo' izeneko topaketaren prestakuntzen barruan. Komunikazioarekin eta ordenadorekin harremana izana zuen euskal talde batek jakin zuen GreenNet izeneko erakundeko partaide batek foro horretako sare informatikoaz arduratzeko jendea behar zuela, eta hara azaldu zi-




ren. Hortik sortu zen mundu osoan zabaldua zegoen sare horretan parte hartzeko aukera, eta taldea osatu zuten Nafarroan, ondoren Hego Euskal Herriko beste hiru hiriburuetara zabaldua. «Materiala mailegatu utzita», azaldu du Zuzen de la Cueva, «paratu gure lehengo zentroa, eta irailan egin zen foro alternatiboaren sare telematikoa antolatzen lagundu gure». Lan gogorra egin ondoren ohartu ziren foro horretan parte hartu zuten talde gehienek aski barneratuta zeukatela sare informatikoekin lan egiteko ohitura, eta asmoa sendo bilakatu zen.

Berehalaxe markatu nahi izan zituzten, ordea, diferentziak: komunikazioen autopisten aurrean bidegorriak, bizikletendako bideak. «Hasteko, Internet ez da sare mundiala, Afrikak eta Asian apenas dagoelako present», dio De la Cueva, «APC, ordea, globala da, Internet helitzen ez den tokietara heltzen delako». Konektatuta dauden zentroek hiru modutan daukate elkarrekin informazioa. Gehienak Internet sareaz baliatzen dira —enpresetako eta unibertsitateko ordenadoreen arteko sare hau erabiltzea telefono deia baino merkeagoa da—, baina, ez dagoenean, telefono sarea eta satelitea erabiltzen da. «Gurean aritzeko pedalei eragin behar zaie, komunikazioa txikiagoa eta mantsuagoa da, baina baita ekologikoagoa ere».

Gaur egun, GreenNet Londresko zentroak eskaintzen dituen zerbitzuaren parte bat baino ez du eskuragarri EuskalNetek. Esate baterako, sarean konektatuta dauden 25.000 ordenadorekin korreo elektronikoa izateko aukera zabalik dago, eta faxa baino erabiliagoa da gaur egun talde hauen artean. Baina GreenNetek zabalik dituen 2.000 konferentzietatik 70 baino ezin ditu irakurri EuskalNetekin lotura duenak, hau da, gaztelaniaz dauden gehienak. Konferentzia

Gizadentzako hiru gaitan, biziaren azken zatia, biziaren azken zatia, biziaren azken zatia...



Uskarari buruzko konferentzia zabaldu nahi du taldeak, EKBrekin batera, eta hori izango litzateke Euskal Herrian irekitzen den lehendabizikoa.

Internet ez da sare mundiala, Afrikak eta Asian apenas dagoelako. APC, ordea, globala da, Internet helitzen ez den tokietara heltzen delako».

deitzen zaio gai baten inguruan ordenadoreen bidez dagoen eztabaidari. Bertan bada iritzia eman, jaso eta bidaltzea, eta horrela iritzigune erraldoi bihurtzen da, denentzat zabalik eta aske.

Urtebete besterik ez badarama ere, hainbat proiektuari babesa eman dio dagoeneko EuskalNetek. Esate baterako, bi egitasmo aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari. Garapenerako Laguntzak izeneko deialdien barruan. Horieta bat izango da Saharako Erreferendumerako Taldearekin egin beharrekoa, hango bake prozesuari buruz dagoen informazioa bideratzeko eta laguntzeko. Beste batek Kubako Ezinduen Elkartearekin lan egitea du helburu. Halaber, parte hartzen ari da Espainian 0,7ren gaiaren inguruan zabaldu nahi duten konferentzia antolatzen lanetan. Bestalde, Donostian egunotan ikusgai dagoen SOS Balkanes elkarrekin paratu duen erakusketan ere parte hartu du, eta hara hurbiltzen den orok mezu aigor dezake Jugoslavia ohiko edozein lekututara, eta, jakina, erantzuna jaso.

Halaber, euskarari buruzko konferentzia zabaldu nahi du taldeak, eta hori izango litzateke Euskal Herrian irekitzen den lehendabizikoa. Horretarako EKB taldearekin ari dira lanean dagoeneko eta laster probetxu aterako zaio harremanari: euskalgitan diharduten erakundearen arteko posta elektronikoa elkarri kostu txiki bidez bidaltzea; ordenadoreetako artxibo eta fitxerokak sare telematikoa-

ren bitartez jaso ahal izatea; munduan martxan dauden beste informatika-sare batzuekin konektatu ahal izatea: Universities, CompuServe, Geonet... Joxe Jabier Iñigo EKBko idazkari nagusiak EuskalNeteren aldizkariaren 0. zenbakian azaldu duenez, «pauso berria da EuskalNetekin ematera goazena. Oraindik ez gaude ohituta modere ez eta posta elektronikoz funtzionatzen, baina gutxienez proba egiteak merezi duela uste dugu. Asmo horrekin egingo da EKB Euskateneko bazkide, urtebete baino lehen euskararen munduko taldeak sare telematikoa ateratzen ikasi izango duten konfiantza osoan».

Pensamiento navarro, bai zera!

Alta beti ironia gordineendakoz xoko tipiren bat egon baitago, nimoñoegia, apika, izanda ere. Nonbait, horren apur apurra suertatzen da, ezen hainbat eta hainbat aunitzek dena lau lau guziz egina dela pentsa egiten duen, hala itsasoak ostemugaren lerro urdin xabal osoa goizaldiero erakusten digun gizaz, nola uren gaineko bits ilun infinito gardean arrastiero zabalzen den moduan.

Alabaina, bazter galdu kausigabeak badira Nafarroa komunitate forala deitzen duten eremu agor intelektual huts amaigabe horretan. Barojaren eleci atzekiaz, irri maltzur handiko filosofia agian astrala gogora dakarkit, pensamiento navarro gure bizimixterable gorri hontako ironia beltz fin finena iduri arras zierto.

Balitzko horrenbeste inkestek aditzerat emanen ligugeten gizaz, ez lirateke urri hekien buruz euskaldun sormalitzketen nafarrak, nahiz aski estonagarri jazo bereziki. Baliriteke dena dela, espagnolatzat ere izanen litzatekeenak. Bainan egia erran, gehien hagituko litzatekeena nafar peto peto soil besterik ez kausitzea genduke, usuegi kasu, duda izpirik gabe gainera.

Balirateke naski estratifikazioak gero, nahas mahas oro suertagarri ahal, baita konbinazio horien portzentaien zerrendakatzeko obtuso eta zailokerrak: nafar hispanikoak balirateke orduan, nafar euskaldunak, espagnolista nafarrak, euskal espagnolistak, euzko naparrak, eta nonbait ere, baita idiren zailak liratekeen anarko nafar internazionalista euskaldunak ere.

Halarik ere, nik ez dakit nolatan leku berean bai eus-

kalduntasuna eta nafarra izatea uzta litzekien. Bi gauza erabat ezberdinak solasgai ditugunak: euskalduna izateak euskaraz elektatzea besterik ez baitakar, nafarra izatea Nafarroan sortu izana deno. Hauze horrela izanik, badira aunitz nafar inglesdunak direnak, frantxiadunak, eta akaso ere, espagnolunak; bestalderik ere, badira euskaldun bizkaitarrak, Eskitilako uskaldunak, suomiarraren bat, niponak barne, eta Murtxantekoren hiruzpalaur seguru.

Afara, arazorik bada, guziz arrunt politikoa dugu. Zenbait nabarista atzerakoen interes ez horren izkurtuek markaturik, puntu erdugarri faltua zabalteko ahaleginak badira, euskarazko zonalde deituriko kajoi bitan sartuz. Beraz baztandar bat, demagun oraiako auzapeza, euskalduna dugu ahatik. Auskalduna. Gero, Tuterako euskaldun poeta lirain bat izatea entelekia baino ez litzateke. Gakoa ezin argiagoa, benetan diren zenbait izenak ez baziren egonen, eta ez Mikel Santz kasualki.

Ene aldetikan, guziarekin ere, aitor beharra daukat ez dudala niholako prejuiziorik, izan ere, geróz eta anafarra-goa senti bainaiz. Esan daitezke lasai aski, norberak zenbat eta kulturalki bere burua jantziagoa ikusten duen ahala, geroz eta anafarra-goa jo dezakeela bere baitan, bere euskalduntasunaren onerako gainera.

Orduan Barojak zioenez, ezin ote pensamiento navarro? Ziur naiz, halakorik izatekotan, euskal pensamiento navarro baino besterik ezin dela egon, hots, vasco vascone lupum —baskoná euskaldunaren dako otsoa—. Superviventiae lex.



Begietako errimela

Galdera: Ezkondutako gizon batekin ibiltzen banaiz, errimelik begiei ez emateko esaten dit nire amak, beti negarka bukatzen baita istorioa (ez dakit istorio ala Historia idatzi behar den, erregina ez naizen arren, nire istorioa ere Historia baita). Oraingo kontent nago. Zer egin beharko nuke?

Erantzuna: Gure bizitzan badira zenbait afer guk gerok erabaki behar ditugunak, guk gerok eta geure burukoak. Besteen iritziak eta gauerdiko Petroneko ahuntzaren ez-tul negartia, gauza bera, Petronekoek goseak akabatzen baitute beti ahuntza, eta alferrik ari da ez-tulka. Barka nazazu, baina nik jai daukat zure kasu horretan.

Galdera: Kabina batetikhots egin nion. Hortotsaren arrastoak negarrak bezala kabinako kristalean behera ikus nitzakeen, euri zaparrada ederra ari baitzuen. Niregana etor zedin deitu nion, ahalik eta agudoen, nirekin Imirizalduko ilunabarra ikus zezan. Haren abotsa urrun-urrun sentitzen nuen, baina goxo-goxoa. Egon pixka batean, esan zidan, Evaren soinekoarekin nagoela, banao pizamaren bila. Baina hori egin beharrean, telefonoa estaliz nik entzun ez nezan, mintzatu zen harekin gaua pasatu zuen gizonarekin, zein nik gustora akabatu beharrean zikiratuko bainuke. Zer egin nezake?

Erantzuna: Oso behin-behineko éuzko sentimendu deritzot horri. Alde batetik bereizi egin behar da Telefonika Konpainiari dagokiona, ez baita deus guti. Telefonikaren bidez haien har-emanak mantentzen dituzten pertsonak dira, ene uste apalean, mundu honetako errukilgarririk handienak. Beste alde-tik, ikustekoa da jendea garbitzeko duzun joera hori, oso literarioa dena, portzierto, norainokoa den. Kasu haue-tan buruarekin hoztu egin behar da bihotza. Erabili burua, eta lasai askoan pentsatu Imirizaldun ez bada, eta go-goan zenuen pertsona horrekin ez bada, badirela Imirizalduko iluntsiak eta go-

goan duzuna bezalakorik. Noski, baietz.



Telefonikaren bidez haien har-emanak mantentzen dituzten pertsonak dira, ene uste apalean, mundu honetako errukilgarririk handienak.



Besteekin egoteko uneak aukeratu eta prestatu egiten ditugun moduan, geure buruarekin egoteko uneak ere begiratu beharrekoak dira.

Galdera: Pablo naiz eta *leasing* empresa batean lan egiten dut. Kontsulta sentimentaletan jeneralean bi pertsonaren arteko aferaz mintzaten da. Bi, hiru edota pertsona anitzen artekoaz. Gustatuko litzaidake, gaitetik bada ere, bi hitz aditza bakartasunari buruz.

Erantzuna: Ongi, Pablo. Badira, ene ustez, bi moztetako bakartasunak. Bata, behartua, ezinuzizkoa, latza, bibliografia eta zinematografia asko duena hiri moderno hauotan. Bestea, berriz, hain aipatua ez dena, eta oso komenigarria dena. Besteekin egoteko uneak aukeratu eta prestatu egiten ditugun moduan, geure buruarekin egoteko uneak ere begiratu beharrekoak dira. Badira ohiko leku horiek, elizak, itsasertzeak, mendigainak, horretarako oso komenigarriak direnak.

Nik beste lekutxo bat aipatuko nuke. Txirrindula eta aldatxoak. Saldiaseko portua, esate baterako. Badu gorputza nekatzeko behar den aszetismoa, eta bakartasun mistiko hori. Dena den, beti dago kotxez joate hori, ezpondan aparkatu eta La vida exagerada de Martín Romaña irakurtzearena, pago baten altzoan.

Klasiko bitxi arront klasiko

Joxemiel Bidador

Laborarien liburuaz (I)

Duvoisinek, Lacoizquetak, Serapio Mugikak eta Inozentzio Munitak argitaratutako izkribuak



Ezaguna dugu honezkero Ainhoarra zen Jean Pierre Duvoisin kapitainak berrogeitalau kapituloetan barna ondu *Laborantzako liburua* edo *bi aita semeren solasak laborantzaren gainean* izenburupean Baionan 1858. urtean eta Pont-Mayuko karrikan, 39 numeroan agertu elekteta taxuturiko idazkia. Hagi-tzez gehiago *Kriselu* argitale-txearen moldetegietatik eta *Klasikoak* bilduma berdexkaren hiru-garren zenbakiarekin zegoeneko 1986. urterako agertu Patxi Altuna euskaltzainak prestatutako berargitalpena gozatzeko aukera izan dugunetik. Interes handiko lanabesa Duvoisinek nekazariei eskeini ziena. Aipatu behar hauxe dela mugazainak sorturiko lan soila, izan ere izkiriatu zituen beste euskal idazkiak itzulpenak baitziren.

Berriki, eta Eduardo Gil Bera idazlearen eskutik espreski, aukera berria izan dugu On Jose Maria Lakoizketa Santestebanen lana irakurri ahal izateko. Saiogile oparo trinkoak sarrera ederra ere ondua du Narbarteko erretorearen liburukiarendako, non haren bizitza eta mirakuluak azaltzen baititu. Jose Maria Lacoizqueta, Narbarteko erretoreak *Diccionario de los nombres euskaros de las plantas en correspondencia con los vulgares castellanos y franceses y científicos latinos* izenburuko liburua argitara eman zuen 1888. urtean Iruñeko *Imprenta Provincial* izeneko moldiztegian. Hauxe ezta euskaraz izkiriatu lana, baina bertan ematen diren berriak benetan jori malatsak direla. Horrelako bilduma luzexka bat landaren euskal ordain guziekin benetan lan mardul erraldoia sueta. Hala eta guztiz ere, benetan berri iturri freskua dugu liburu honek isurtzen diguna. Sarreran Gil Berak eskeintzen digun gizaz, bitxia dugu Lakoizketaren ereduia, Pio Barojak berak beren bi lanetan gutienez ageru zuelarik (*El caballero de Erlaiz* eta *El cura de Monleón*). Herrian den trufagarri suertatzen zeno, Parisko *Société Française de Botanique* elkarteko kidea dugu, hala nola Madrileko *Sociedad Linneana* deiturikoarena ere.

Lanaren eskuizkribuan bada argitaratu ez den kapitulu bat beranduxeago Pablo Fermin Irigaray ateratzen duena *Boletín de la Sociedad Aragonesa de Ciencias Naturales* (V, Zaragoza, 1906) aldizkarian. Honetan nekazaritzaz mintzo dugu. Gariaren nahiz lihoa-

ren landatzeari uztearen abantaila ari da, zelai belarren aldeko apoteua eginez abeltzantzari gogoraroago eusteko. Jules Verne bantantzera, gauza haboro oraino erreikusten du, esate baterako trebidearen agerpena Bidaso-Bazaldean, 1916. urtean Irun-Elizondibidea sortuz.

Jadanik hogeigarren mende benetan, Gipuzkoako Diputazioaren Nekazaritza Batzordeak egin *Nekazaritzako irakurraldiak mediodeko ikastolentzat* agertzen. Donostian 1933. an, Diputazio Irarkolan. Nork ez du ikusi? Zerbalkunde ikaragarriko liburua duguhau. Ene kasuan, bitxi samarsueta zait ale hau Tuteran ikurizana (Donacion de la Sociedad Estudios Vascos Eusko Ikaskuntzaren Emaizta). Benetan aholkibereziak ematen direnak Txiki marrazki klasiko horien bidez Serapio Mugikak euskaratutatu testu ederraren bitartez. 10 orrialde leitzerakoan ezin uka Patziku Perurena egindakoarena gogora datorkidala apez honela mintzatzean: «Orobat dira igel ta larrapoak nekazarien lagunak. Anmale oiek iguingarriak dirala akabatu nai genituzke; ordea landareen etsaiekin oiek lan bikiaregiten dute zomorroak erruz ilte lotsadun ta eskerdun gizaizkiek. Ta ain lan bikaña ezik! Lur gañen animala gizaio oiek ezkututako birlira, gizonak jaten dituan landa asko gero ta minte geiagoz ondutok lirake».

Gaurkoz ahitzeko, soilik aipatu beste idazle baten lan ederra. Hada 1874an Leaburu sortu zen Inozentzio Munita Arizmendik, Arimako Erretoreak hain zuzen *Gure mendi ta oianak: zuaizti berrriak antolatu ta lengoak zaintze zuzenbide batzuek* izenburuko 16 orrialdetako plazaratu zuen idazkia, 1952. urtean Tolosan, Mugazaren etxean. Honetan zuhaitz mta ezberdinen deskribapena ze landaketa-zainketarako aholku ematen ditu. 50. orrialdean Leitzuko gaztañondo bati buruz aritze da, oraino zaharraren batek orain agian aditua izandakoa: «Leitzoerrian dago. Bere gerria inguramabi metro bada. Agiri dan zlotik sartuta, lau gizon egoten dñ batera, barruan. Zortzi gizon har dira, alkarri eskuak emand bera inguratzeo. Sinisten ez badu, Leitzan Soroa baserri ondoko billatuko dezu. Egia, zerbait ikusi gabe siñistea ere».



■ Iruñeko Hiria Xake Torneo irekiko 9. ihardunaldiko partida, 1995eko urtarrilaren 5ean jokatu.

M.Sion, 2.380 ELOkoa—Sebastian Cervantes, 1.995 ELOkoa.


1. e4, c5; 2. Zf3, d6; 3. d4, d4; 4. Zd4, Zf6; 5. Zc3, a6; 6. Ac4, e6; 7. Ab3, Ae7; 8. g4. Oso atzean geratu dira beltzak. Txuriek ez dute eraso egiteko aukerarik galdu. 8... Zc6; 9.g5, Zd7. Ikus koadroa. Gero eta bilduagoa, txuriei sarrera erraztu diete. 10. Ae6. Alfila jatea erregea babesik gabe uztea da. Dama ere prest baitago jokoan sartzeko. 10... Ag5; 11. Zc6, c6; 12. Ad7 xa, Ad7; 13. Ag5, Dg5; 14. Dd6. Peoi bat gehiago,

eta aurkako erregea larri: hori da lehenengo borrokaren emaitza.

14... 0-0-0; 15. Dd2, Dd2 xa; 16. Ed2, f5; 17. hG-g1, hG-e8. Hobe zirudien 'g6' jokaldiak. Gaztelua areioaren eremuan sartukod a. 18. Gg7, e4; 19. Ee3, Af5; 20. Gd1, Gd1; 21. Ad1, Eb8; 22. Zc3, Ag6; 23. Ze2, Gf8; 24. Zd4, Gf6; 25. b4, a5; 26. c3, b4; 27. b4, Ec8; 28. a4, Gd6; 29. a5, Gd7; 30. Gd7, Ed7; 31. Ze6.

Ezin dute zaldia harrapatu, gazteluko peoia sartuko litzatekeelako. 'Zc5' jokaldiaz 'e4ko' peoia kondentua dago.

Beltzek etsi zuten.



KIKE D. DE ULTZURRUN / IRUÑEA

Igande honetan izango da Leitzako pilotalekuan Nafarroako Bertsolari Txapelketaren final nagusia. Arzallus, Manolo Arozena, Elizagoien, Xalbador II.a, Silveira, Estitxu Arozena, Alkat eta Amaia Telletxea ariko dira elkarren artean norik bertsu ederragoa botako. Eztabaidak eta haserreak gora-behera, igandekoa gozatzeko eguna izango delakoan daude gehienak, bertsolariak barne.

Baztandarrak eutsiko ote dio txapelari?



Arozenak eta Elizagoienek dute aukera gehien txapela bururatzeko.

Amazabal pilotalekuan, arratsaldeko 5etan hasita, igandean, lehiatuko dena. Behar bada, aurtengo txapelketari buruz, komunikabideetan, oro har, gehien isladatu dena, Barañaingo ziztualdia izan da. Txapelketak, ordea, bertzerik izan du, eta, komenigarria litzateke gogoratzea, aurtengo bi aurpegi berri ikusteko parada izan dugula: Legarreta aranoarra eta Leiza arbizuarra. Hortaz landara, ez daiteke saihestu Elkarteak daraman bidea. Bide horri lotuta nafar bertsolaritzak aitzinera egin du hondarreko urteotan, eta, gaur egungo emaitza lan horren ondorio garbia da. Gainontzekoak, hau da, hika-mika horiek mahai gainean paratuko dira Leitzako saioa pasatu bezain laster. Bitartean, josteta moduan, nor bere apustua egin dezake: nor txapeldun? Iruñeko Alde Zaharreko taberna horretan zure apustuaren zain daude. Oraingo, bederen, hiru izen agertzen dira. Animatu eta idatz ezazu zeurea.

Alde horretatik giroa somatzen da. Duela bospasei urte ezinezkoa zen halako girorik topatzea, eta, jende berria hurbiltzen ari da bertso saioetara, esate baterako, Iruñerriko euskaldunberria. Iruñerrian bizi dira euskaldunik gehien, hogeitamar mila baino gehiago, elkarren arteko lotura handirik ez dutenak. Horrenbertze euskaldun izanik, pentsatzekoa da bertsozaleak ere

Ernest Alkat iholdiarraren bertsoen kalitateaz duda egiten duenak deus gutxi daki bertsolaritzaz.

Ez daiteke saihestu Elkarteak daraman bidea. Bide horri lotuta nafar bertsolaritzak aitzinera egingen du hondarreko urteotan, eta gaur egungo emaitza lan honen ondorioa da.

ez direla gutxi izanen, eta, antolatzaileen hitzetan horixe da txapelketaren helburu bat: zaletuak sortzea. Horrexegatik aurtengo saio bat Iruñerrian egingo da, Barañainen, hain zuzen ere. Hurrengo urratsa Iruñerrian bertsolari bat ateratzea. Hori zaila da, duikabe, baina geroak erranen du. Bitartean, bertso onak entzuteko aukera Leitzan izanen dugu etzi. Zaletasun horrek bultzatuta jende asko joanen da, eta, bertze zenbait, zer erremedio, Barañaingo ziztualdiak erakarririta. Zer egingen diogu.

Horra zortzikotea Leitzako

BITTOR MANOLO ETA ESTITXU Baietz eta ezetz. Honek edo bertze horrek. Halakoak edo gisakoak, hantxe ibili-ziren eleketa luzexkan, tabernariak apustuari bidea eman arte. Halaxe ba, hiru izen azaltzen dira taberna horretan: Bitor Elizagoien, Manolo Arozena eta Estitxu Arozena. Gehiago ere badira, noski. Jexux Artzallus, konparazio batera. Hendaian bizi den gipuzkoarrak tajuzko bertsokera agertzen du gehienetan eta oso erregularra izaten da. Ezin bazterrean utzi Xabier Silveira, ez, behintzat, Barañainen bezala kantatu ezker. Amaia Telletxea ere finalista dugu, eta, mugaz iparraldeko bertsolariak bi ditugu, Xalbador eta Alkat. Ernest Alkat iholdiarraren bertsoen kalitateaz duda egiten duenak deus gutxi daki bertsolaritzaz. Gaia emanda, berehala mikrofonoari heltzen dion horietakoa baña, eta, arrazoi onak botatzen ditu, bai azken puntuan, baita aurrekoetan ere, eta, puntuak egokiro lotuz, gainera.

«Aberatsa da presondegia ezagutzea»

LUTXI FOURCADE / BAIONA

Erik Lexardoik bere izena ezagutarazi zuen Ipar Euskal Herriko bazterretan 1991ko abenduan, lehen aldikotz beste bi lagunekin batera intsumiso egin zenean. Intsumisio mugimenduen lehen urratsak eman zituzten presondegiratu zituzten hiru gazteok. Presondegitik ateratzean, ostatua ireki du Baiona Ttikian eta datozen Nafarroako hauteskondeetan parte hartuko du Herri Batasunaren zerrendan.

ikasteko lehen klaseak amarengatik segitu ditutala. Izena eman zuen AEK-ko Gau Eskoletan 12 urte nituenean, esplikatu Iparraldean biziko girela eta derrigorrez euskara ikasi behar nuela. Ez nuen gauza handirik ikasi garai hartan, baina gero Baionara bizitzera etorri nintzenean beharra sentitu nuen lagunekin ibiltzeko eta hasi nintzen serio ikasten.

EGUNKARIA.—Zer asmorekin ideki duzue Alboka ostatua toki honetan?

nean?

LEXARDOI.—Euskararekin bezala gertatu da. Lagunekin Patxa taldean ibiltzen ginen eta euskararen ikasteko gogoia ukan genuen bezala, pentsatu genuen armadatik izanen genuen deiari arrapostu amankomuna eman behar geniola. Nik, zer nahi gisaz banekien ez nuela eginen baina pentsatzen nuen kontzientzi eragozpenaren hautua eginen nuela. Bi lagunekin eztabaidatu ondoren, Lof eta Nikolas, geure burua intsumitzea erabaki ge-

ratsa da beste munduaren ezagutza egitea, hobeki ulertzeko. **EGUNKARIA.**—Zure engaiamendua Herri Batasunaren zerrendan lehengo hautuaren segida da?

LEXARDOI.—Erran behar da Nafarroako taldeak eskatu zuela Iparraldeko Ezker Abertzaleko kide bat zerrendan izatea, eta gainera nahiago zuten Nafarroa Behereko norbait, Nafarroaren batasuna aldarrikatzeko. Bestalde, hango gazteek nahi omen zuten hautagaia intsumisioa izatea. Ondoren, Nafarroa Beherako intsumitu bakarra izanez, eskatu didate zerrendan sartzea eta onartu dut. Ez zen inolako agindurik baina HBko jarrerak gehienetan asumitzen baititut, ene gustukoak baitira, adosta-



Erik Lexardoik, bigarrena eskuinetik hasita, prentsaurreko batean.

EGUNKARIA.—Erik Lexardoik, Nafarroa Beherekoa zara baina non sortu zara xuxen?

ERIK LEXARDOI.—Sortzez, Angers-koa naiz! Ama zuberotarra, Barkoxekoa, eta aita kanpotarra, Nievres departamendukoa. Anauzen bizitzera jin nintzen 11 urterekin baina azken urte honetan Baionan bizi naiz.

EGUNKARIA.—Erran nahi du euskara geroztik ikasi duzula?

LEXARDOI.—Euskara ikasteko hiru hilabeteko barnetegia egin dut Lekeition eta beste bi hilabetekoa Alduden. Ondotik, beste urte bat Irulegiko Irratian pasatu dut, animatzaile gisa, ene euskara Ipar Euskal Herriari egokitzeko. Azpimarratu behar dut euskara

LEXARDOI.—Lehendabizikoa, argi zen zerbait behar genuela bizitzeko. Bestalde, ikusiz ostatua nolakoa zen, zer giro zen auzo horretan, gure indarrak elkartzeko erabaki genuen proba egitea. Geroztik, ez dakit nik segituko dudanez horretan, nahiz eta hemen giro euskalduna izan. Giro berezia sor dezakegu, eskainiz beste ostatuek eskaintzen ez dutena, harreman bereziak lot ditzakegu jendeekin, euskal giroa sortu dugu baina aitortu behar dut komertzio egitea ez dela bātere ene gustukoa.

EGUNKARIA.—Zure izena ezagutarazi duzu intsumisio egin zarenean. Nola etorri zara intsumisiora, garaian Iparraldean mugimendurik ez ze-

nuen, nahiz eta ondorioak ez genituen hain argi.

EGUNKARIA.—Eta garai hori nola bizi izan duzu?

LEXARDOI.—Aski fite! Ez naiz denetaz ohartu, sobera fite pasatu baita. 1991ko urrian intsumitu ginen eta ondoko sei hilabeteetako mugimendu guztietan parte hartu genuen. Atxilotu gintuzten eta sei hilabete barnean egon naiz; ondotik ere beste auzi batzuk ukan ditut. Oro har, urte t'erdia batez egon gara pil-pilean eta nahiko fite pasatu da. Enetzat, esperientzia ona izan da, batez ere, presondegiarena, sei hilabete baizik ez bainaz geratu itzalean noski. Kontutan hartuz 50.000 jende baino gehiago preso daudela Frantzian, abe-

«Euskal Herria nahiko txikia da eta herriaren eratzean bere osotasuna finkatu behar dugu lehen helburutzat ene ustez».

suna adierazi dut. Egia da Nafarroako batasunaren alde agertzea ere garantzitsua dela baina enetzat ez da lehentasuna. Euskal Herria nahiko txikia da eta herria osotasunean eratzea lehen helburutzat finkatu behar dugu ene ustez. Ez da dudarik harreman bereziak daudela nafarren artean eta maiz senideak mugaz bi aldeetan aurkitzen direla. Elkartrukeak sakondu eta erraztu behar dira, nahiz eta kasu gehienetan automatikoki egiten diren.

EGUNKARIA.—Baionan bizi eta kanpoan sortu arren, hala ere sustraiak Nafarroan sentitzen dituzu?

LEXARDOI.—Bai, dudarik gabe, nahiz eta euskalduna senti naizen lehenik. Alabaina, nahiago dut ene burua nafar sentitu, zuberotar, lapurtar edo bizkaitar baino. Badu bere 'grazia', hala ere...

Erik
Lexardoik

INTSUMITUA



SOSLATA

Nafarroa Behereko intsumiso bakarra

Erik Lexardoik jaio zen duela 24 urte Angers hirian. Hamaika urterekin Anauzen bizitzera etorri zen eta bere amak Gau Eskoletan sartu zuen, «Iparraldean izanez, beharrezkoa zelako euskara jakitea». Duela lau urte bere burua intsumitu zuen bi lagunekin, intsumisioaren mugimenduari abiapena emanez Iparraldean. Barnealdeko intsumitu bakarra da, ez baita besterik Nafarroa Beherean ezta Zuberoan ere, eta bere izena aurkeztuko da aurten Nafarroako hauteskonde-tako HBren zerrendan. Ostatua dauka Baiona zaharrean lagun batekin, baina aitortu du ez duela merkatarik kontzientzi izpirik ere.

NOSKI JATOR

MENDIAN GORA ①: Agroturismaren poza txikiak.



© Zaldí EROA